



Arkotxa

etxebizitza

Aldacrak:
Ahozkoa: Arkótxe



43° 11' 4"

2° 34' 23"

Berriz Iruditan / J.A. Ramos

Done Laurendi (**Ikus Done Laurendi**) ermitatik gertu kokatzen den baserri honen gaineko lehen aipua XVIII. mendean aurkitzen ditugu, *Arcocha de Yuso* forma erregistratzen da 1704. urteko lehen su-errolan. Hortik aurrera, izenaren bigarren osagaia galtzen da, eta *Arcocha* era nagusituko da: *Arcocha* (1796, Bizkaiko su-errolan), *Arcocha* (1826, BAH, A355/15. or.) edo XX. mendeko dokumentuetan *Arcocha* (1967, BUA, CE). Berriztarren artean, *Arkótxe* da ahozko formarik erabiliena.

Gaur egun duen itxura ez da jatorrizko etxea jaso zutenean zeukana, XVIII. mende inguruan. Izan ere, azkeneko berriztatze lanetan harlangaitza estaltzen zuen kapa kendu diotetik, garbi-garbi ageri dira etxe haren kantaleko harlanduak eta fatxadako baoen antolamendua. Askotan ikusi duguna zeukan, hau da, pisu bi eta ganbara, hiru ardatzetan antolatuta eta erdikoa, indartuta. Honetan atea zuen erdian, gainean leiho luzea eta ganbarako txikitxo. Denak dinteldunak eta harlanduz inguratuta. Beranduago, etxea ezkerretik handitu zutenean, bi isuritako teilatuaren gailurra ere lekuz aldatu zuten, berriaren erdian kokatzeko.

toponimia

Nahiz eta izen hau leku baten baino gehiagotan ageri den (*Durangon, adibidez, izen bereko kalea dugu*), ez dugu etimologiari buruzko inolako teoriarik.